





Añorgako Lantegia



Heidelberg
Materials

Historia



1850

José María Rezola Gaztañagak ekin zion Cementos Rezolaren jarduerari Añorgako “La Esperanza” lantegian.

1900

Komandita erako “Hijos de José María Rezola y Cía” Sozietatearen eraketa.

1901

Portland zementua egiteko Añorgako lantegi berriaren eraikuntzaren amaiera.

1920

Lantegiaren inguruan langileentzat eraiki ziren eta Añorga auzoaren sorrerari hasiera eman zioten etxebizitzak inaugurazioa.

1929

Cementos Rezola S.A.-ren eraketa.

1989

Cementos Rezola Europako Ciments Français taldean sartu zen.



1996

Añorgako lantegiak Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren AENOR ziurtagiria lortu zuen, Nazioarteko UNE-EN ISO 9001 Arauaren arabera.

2000

Añorgako lantegiak Ingurumen Kudeaketako AENOR Ziurtagiria lortu zuen, Nazioarteko UNE-EN ISO 14001 Arauaren arabera. Urte horretan bertan inauguratu genuen Museum Cemento Rezola.



2009

Segurtasun Solidarioa proiektuaren abiaraztea. Langileak segurtasunarekiko konpromisoan era aktiboan lotzen eta haien lorpenak elkartasun bihurtzen dituen ekimen aitzindaria da.

2016

HeidelbergCement Group-ek Italcementi Group-en bereganatzea osatu zuen, eta, beraz, Añorgako lantegiaren kontrola hartu zuen.



2023

HeidelbergCement Group, Cementos Rezola eta Hanson nazioarteko marka beraren pean finkatu dira, eta Heidelberg Materials bihurtu dira.

Lantegia



+ 150 urte baino
gehiagoko historia
industrialia

Añorga auzoan dago, duela 150 urte baino gehiagotik, eta haren sorrerak eta garapenak inguruaren bilakaera eta gorakada ekarri zituen, lantegiak hasieratik Añorgarekin eta bertako biztanleekin erakutsi zuen konpromiso sendoari esker. Izan ere, hainbat zerbitzu zituen kolonia industrial osoa eraiki zuen biztanleentzat: eskola, ekonomatoa, kirol-espazioak, eliza, etab.

Bere historia luzean, Añorgako lantegiak etengabeko bilakaera izan du. Hasieran, ur-errotaren bitartez, inguruko etorkizun industrialia irauli zuen zementu naturala eginez. Instalazioak birmoldatu eta modernizatu ondoren, aitzindaria izan zen Portland zementua egiten, eta material horrekin eraiki zuen gaur egun Añorga izenez ezagutzen dugunaren parte handia.

Gaur egun, Europa mailako kalitate eta ingurumen kudeaketako ziurtagiri zorrotzenak lortu ditu, eta zementu sorta zabala ekoizteko gai da, merkatuan berritzaileenetakoak eta jasangarrienetakoak diren, eta karbono aztarna txikienetakoak duten batzuk barne.

Gaur egun, bere instalazioak Heidelberg Materials enpresaren esku daude: munduko lehen agregakin fabrikatzailea, bigarren zementu fabrikatzailea eta hirugarren hormigoi fabrikatzailea.

LANTEGIA HEIDELBERG MATERIALS-EN PARTE DA

1^{er} Agregakin
ekoizlea



2^o Zementu
ekoizlea




3^{er} Hormigoi
ekoizlea





+3,5

MILIOI BAINO GEHIAGO
INBERTITU DIRA




Instalazioak
modernizatzeko eta
ingurumenaren ikuspegitik
hobetzeko Euskal Herrian

Heidelberg Materials Hispaniak AENOREk emandako ziurtagiri hauek ditu:



Añorgako lantegia



Aurkitu
gehiago
zementuaren
fabrikazioari
buruz



1 Lehengaien nabea

Bertan jaso eta biltegitratzen dira harrobietatik datozen lehengaiak.



Biltegiak erabat estalita daude euri-urak ez kutsatzeko. Tobera eta banda garraiatzaileekin, isuri barreiatuak saihesten dira, tentsio-aktiboen aspertsio-sistemaren bidez.

2 Erregai solidoen biltegia

Eremu horretan biltegitratzen da klinker-labeen erabiltzeko erregai solidoa.



Biltegitratzeak dekantazio-putzuak ditu euri-urak ez kutsatzeko, eta gure ehotze-instalazioaren gainean mahuka-iragazki handi bat dago, partikulak kanpora ez isurtzeko.

3 Dorre trukatzailea eta Klinker-labe birakaria

Labean, dorre trukatzailetik igaro ondoren aurrez berotutako lehengaiak klinker bihurtzen dira. Klinker hori da zementuaren osagai nagusia.



Dorre trukatzaileak erregaiaren energia hobeto aprobetxatzea ahalbidetzen du. Tximiniek eta hozkailuak mahuka-iragazkiak dituzte, partikulen ihesa saihesteko. Instalazio horien neurketa etengabe konektatuta dago Eusko Jaurlaritzarekin.

4 Klinker-siloa

Bertan gordetzen da labean egiten dugun klinkerra, errotetara bidaltzeko zain.



Siloak berak eta garraio-sistemek mahuka-iragazkiak dituzte, partikulak kanpora ez isurtzeko.

5 Zementu errotak, siloak eta bidalketak

Errotetan nahasten eta ehotzen da klinkerra, gogortze-erreguladorearekin eta gehikuntzekin batera, hauts fin eta homogeneoa lortu arte: zementua. Lortu ondoren, siloetan biltegitratzen da, motaren arabera bereizita, zakuratzeko edo kamioietan bidaltzeko zain.



Erroten itxitura berriak zarata murrizteko diseinatuta daude, eta prozesu osoan mahuka-iragazkiak daude, partikulak kanpora ez isurtzeko. Zenbait gehigarriren orde besterik ezinbatuak soberakinak erabiltzen dira, hala nola zepak, errautsak eta igeltsu kimikoa.

6 Ontziratzea

Heidelberg Materials izan zen Euskal Herrian 35 kg-ko zementu-zaku tradizionala 25 kg-ko zaku-formatu berrira egokitu zuen lehen zementugilea. Ergonomikoagoa da eta eragin zuzena du langileen lan-osasunaren hobekuntzan.



Ontziratzean, zementuak kanpora ihes egitea saihesten duten zenbait metodo daude.

Lantegia eta Ingurumena



Añorgako lantegiaren jarduera industrialara arau nazional eta europarrak zorrotz errespetatuz egiten da.

Azken 10 urteetan 2 milioi euro baino gehiago inbertitu dira ingurumen arloko hobekuntzetan, lantegian egindako inbertsio guztien %14a.

INBERTSIO NAGUSIETAKO BATZUK

- **Ur amoniakala dosifikatzeko sistemaren instalazioa**
Abangoardiako sistema horrek NOx isuriak murriztea ahalbidetzen du.
- **Isilgailuen eta itxituren instalazioa**
Ingurunera egiten diren zarata-emisioak murriztea ahalbidetzen du.
- **Ehun iragazlearen aldaketa ikatz-errotaren iragazkiaren mahuketan**
Jarduketa horrekin hautsezko materialen iragazketa-errendimendua hobetzen da.
- **Añorga Txiki auzoan airearen kalitatea kontrolatzeko kabinaren instalazioa**
Instalazio horrek ondoko auzoko airearen kalitatea denbora errealean ezagutzeko aukera ematen du.
- **Klinkerra biltegitartzeko siloaren eraikuntza**
Eraikuntza horri esker, partikulen emisio barreiatuak murriztea lortu genuen.
- **Lantegirako sarrera berria, Donostiako Udalak N-1 errepidea bulebar bihurtzearekin batera**
Jarduketa horri esker, ibilgailu astunen trafikoa murriztu da ondoan dagoen Añorga Txiki auzotik gertu.
- **Euri-uretarako araztegi nagusi handituaren instalazioa**
Solido esekiak murriztea eta isuritako uren kalitatea hobetzea ahalbidetuko du.

Etengabeko inbertsio
horien emaitzak
konstanteak eta
ziurtatuak dira

- AENOR Ingurumen
Kudeaketaren ISO 14001
Ziurtagiria



**Kontrola, konpromisoa eta
gardentasuna dira gure
ingurumen-politikaren
zutabeak.**

Ekonomia zirkularra: Guztion erantzukizuna



Zer da ekonomia zirkularra?

Ekonomia zirkularrean, erabiltzeko eta botatzeko printzipioan oinarrituta dagoen linealean ez bezala, produktuen bizi-zikloa luzatu egiten da, konponketa, berrerabilpena, birfabrikazioa eta balorizazioa errazten dituen ekodiseinu hobeari esker.

Nola laguntzen dio zementuaren sektoreak ekonomia zirkularrari?

Industriaren konpromisoa ezinbestekoa da ekonomia zirkularrak proposatzen dituen helburuak lortzeko. Hondakinak berrerabiltzea eta energia alternatiboak erabiltzea funtsezkoak dira jarduera industrialaren garapen jasangarrirako.

Añorgako lantegiak, “Ekonomia Zirkularra: Guztion erantzukizuna” programari eta langile guztien lankidetzari esker, lantokian sortutako hondakinak murrizten eta birziklatzen laguntzen du, ingurunearen jasangarritasuna egunero hobetuz.



Giza jardueraren ondorioz sortzen diren hondakinen %60 inguru ezin dira birziklatu*. Zementuaren sektoreak, ekonomia zirkularrari ekarpen handiena egiten dion sektoreetako batek, honela kolaboratzen du:

Lehengaien berrerabilera

Zementua beste industria batzuetako hondakin-materialekin fabrikatu daitekeen produktua da, beste enpresa batzuen soberakina berrerabiliz.

Balorizazio energetikoa

Zementu-sektoreak berrerabili ezin diren hondakin hautatuak erabiltzen ditu erregai fosilen parte bat ordezkatzeko, ikatza edo petrolio-kokea, besteak beste.

SEKTOREAK

2,2^{**} MILIOI
TONA



LEHENGAI ALTERNATIBO ERABILTZEN DITU

1.070.000^{**}
TONA



ERREGAI ALTERNATIBO ERABILTZEN DITU


AÑORGAKO LANTEGIAK HAU ERABILTZEN DU

63.000^{***}
TONA



LEHENGAI ALTERNATIBO

17.200^{***}
TONA



ERREGAI ALTERNATIBO

Informazio gehiago nahi
izanez gero, kontsultatu:

www.fundacioncema.org



Informazio gehiago nahi
izanez gero, kontsultatu:

www.recuperaresiduosencementeras.org



Jardunbide egoki horiei esker, zementu-industriak, oro har, eta Heidelberg Materials-ek bereziki, baliabide naturalen kontsumoa minimizatzen dute eta klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzen dute.

ZEMENTU SEKTOREAK HAU SAIHESTEN DU

3,3 MILIOI
TONA

HONDAKIN
ISURTEGIETAN AMAITZEA



1.087.000 *
TONA CO₂

ATMOSFERARA ISURTZEA

HAUEN BALIOKIDEA

1.081* IGERILEKU
OLINPIKO
HONDAKINEZ BETETAKO



URTEAN

1.250.000*

ETXEK SORTUTAKO ENERGIA-KONTSUMOA



115** MILIOI
EUROKO

AURREZPENA UDAL-HONDAKINAK
KUDEATZEKO KOSTUAN



305.000*

IBILGAILUREN URTEKO ISURIAK



* Iturria: Cema. 2021ko datuak Espainia **Espainiako zabortegi baten batez besteko kostuaren (49 €/t) arabera kalkulatua

AÑORGAKO LANTEGIAK* HAU SAIHESTEN DU

80.600
TONA



HONDAKIN ISURTEGIETAN
AMAITZEA

13.800
TONA CO₂

ATMOSFERARA ISURTZEA

HAUEN BALIOKIDEA

26 IGERILEKU
OLINPIKO
HONDAKINEZ BETETAKO



15.800
ETXEK URTEAN
SORTUTAKO
ENERGIA-KONTSUMOA



3,1 ** MILIOI
EUROKO
AURREZPENA UDAL-HONDAKINAK
KUDEATZEKO KOSTUAN



3.800 *
AUTOREN
URTEKO ISURIAK



* Añorgako lantegiko batez besteko haztatuaren datuak 2021-2022** Euskadiko zabortegi baten kostuaren (128,6 €/t) arabera kalkulatua

Lantegia eta laneko segurtasuna

Heidelberg Materials-entzat, laneko segurtasuna eta osasuna funtsezko eta lehentasunezko balioa da.

Segurtasun-dispositibo onenei eta laneko arriskuen prebentziorako politika zorrotzei esker, ezohiko helburuak lortu ahal izan dira, laneko baja sortu duen inolako istripurik gabeko zenbait urte lortu arte.



Segurtasun solidarioko proiektua

Urtero, Heidelberg Materials-ek eskerrak ematen dizkie bere langileei egunez egun Segurtasun Solidarioa proiektuaren bidez egiten duten ahaleginarengatik, haien lorpenak laneko segurtasunean eta osasunean ongintzazko ekintza bihurtuz.

Horrela, urtez urte, Gipuzkoako GKEek lantegiak istripurik gabe lortzen dituen egunei lotutako dohaintzak jasotzen dituzte.




Lantegia eta Gipuzkoaren garapena

Añorgako lantegiak konpromiso sendoa du Gipuzkoaren garapenarekin.

Bere langile eta senideentzat Añorga auzo osoa eraiki zen lehen urteetatik gaur egun arte, lantegiak Gipuzkoa modernoago, eraginkorrago eta seguruagoaren aldeko apustua egin du.

Añorgako lantegiko labeetatik atera da Donostiako azken mendeko obrarik adierazgarrietako batzuei bizia eman dien zementua, hala nola Perlako Eraikina, Aquariuma, Kursaal Auditoriuma, Deustuko Unibertsitatea, Pasaiaiko portuko eraikinak, Donostiako Ospitalea, Anoeta estadioa, Hondarribiako portua, Añarbeko, Arriarango, Aixolako eta Ibiurreko urtegiak, Donostiako saihesbidea, Getariako portua, Urumeako autobia, Orioko zubia eta Donostiako V. zubia, beste askoren artean.

A photograph of a modern, white, curved bridge spanning a body of water. The bridge has a prominent arch and a glass railing. In the background, there are several buildings, including a large brick building and two tall, thin towers. The sky is overcast with grey clouds. A yellow semi-circle is visible on the left side of the image, partially overlapping the bridge's arch.

**Gipuzkoaren hazkundera
geldiezina da, eta
Heidelberg Materials-en
harro gaude horretan
laguntzen ari garelako.**

Lantegia eta Gipuzkoaren garapena

Berrikuntza funtsezko zutabea da Heidelberg Materials-entzat. Eraikuntzarako soluzio jasangarriagoak, aurrerratuagoak eta seguruagoak sortzearen alde egiteak ahalbidetu du konpainia lider izatea eraikuntza-materialen sektorearen deskarbonizazio-prozesuan, eta aitzindari izatea eraikuntzarako soluzio berritzaileen merkatuan.

Ikerketaren eta berrikuntzaren aldeko etengabeko apustu horren ondorioz, Heidelberg Materials-ek eskari zorrotzenak asetzeko gai diren produktuak eskaintzen ditu, hala nola karbono-aztarna txikia eta material birziklatu eduki handia (**eco.build**) duen zementu-sorta handia edo lurzoruak egonkortzea eta ingurunearekin ezin hobeto integratzea ahalbidetzen duen lurzoru-zoladuretarako **i.pro STABEX** egonkortzaile naturala, edo **i.pro STABILE**, bideen eraikuntzan kalitate txikiko lurzoruak berrerabiltzea eta jarduketa horien ingurumen-inpaktua nabarmen murriztea ahalbidetzen duen HRB berritzailea.

Donostiako V. Zubia eta LAV izenekoa, **ULTRA 52,5 R/SR** gamarekin fabrikatutako prestazio handiko hormigoiekin eraikiak, edo **ESP IV** zementu espezifikoa garatu behar izan zen Ibiurko urtegia, Heidelberg Materials-ek Gipuzkoako azpiegitura enblematikoenei egindako ekarpenaren adibide dira.

Donostiako Loiolako Erriberak auzoan dagoen Iesu elizak, Irungo Karmeldarren eraikinak eta Zuatzuko Ikus-entzunezko Berrikuntza Poloak, airearen kalitatea hobetzen duten kutsaduraren kontrako propietateak dituzte, i.active zementu fotokatalitikoei esker, eta Aieteko Jauregiko bideek ingurune naturalarekin erabat integraturik dagoen itxura erakusten dute, egonkortzeko i.pro STABEX erabili baita.



Soluzio jasangarriagoetan
berrikuntzaren alde eginiko apustu
horrek Gipuzkoa modernoagoa eta
eraginkorragoa lortzeko aukera
eman du.

Lantegia eta prestakuntza



Barne-mailan, Lantegiak etengabeko prestakuntzan inbertitzen du, langileen ikaskuntza eta etorkizuneko erronka profesionalei aurre egiteko prestakuntza bermatuz.

Lantegiak Gipuzkoako gazteen prestakuntzan eta garapen profesionalan laguntzen du.

Lurralde historikoko prestakuntza guneekin duen lankidetzari esker, horien artean unibertsitateak eta lanbide heziketako ikastetxeak, ikasleek beraien praktikaldia Heidelberg Materials-en amaitu ahal izango dute. Praktikaldi horiek enpresaren sail guztiak hartzen dituzte, eta partaideei ikasitakoa indarrean jartzeko eta lanerako trebatzen jarraitzeko aukera eskaintzen die.

Konpainiak etorkizuneko belaunaldien garapena babesten du, kalitatezko prestakuntzaren eta ikasten jarraitzeko pizgarrien bitartez.



Lantegia eta eskolak



Lantegiak bisita gidatuak eskaintzen ditu urte osoan zehar, zementuaren elaborazio eta fabrikazio prozesua eta azken erabilera eza-gutarazteko.

Bisitaren barruan ibilbidea egiten da instalazioetatik, laborategi fisikoetara, kimikoetara, kontrol aretora eta kanpoaldera, zementuzko edukiontzitik igaroz, labearen gunera heldu arte.

Ibilbidean zehar, ingurumena babesteko lantegian hartzen diren neurriak erakusten zaizkie, energiaren aurrezpena, material alternatiboen erabilera erregai gisa, CO₂ isurketen murrizketa eta iragazkien erabilera atmosferara isurtzen diren partikulen kontrolerako.



+ 16.000

**IKASLE BAINO GEHIAGOK
EZAGUTU DITUZTE GURE
INSTALAZIOAK 2007TIK**



Lantegia eta kultura



Heidelberg Materialek hiriaren garapen kulturala bultzatzen du, Donostiako Orfeoia, Añorgako Memoria Historikoaren Elkarte, Otxote eta Añorgako antzerki taldea bezalako erakundeekin lankidetzan arituz, eta Rezola Zemento Museuma kudeatuz, zementua, haren fabrikazio prozesua, aplikazioak, berrikuntzak eta material horrek erromatarren garaitik gaur egunera arte zibilizazioaren garapenean izan duen garrantzia ezagutzeko.

Museoa 2000. urtean inauguratu zen, eta garai batean lantegiko langileen seme-alabentzako eskola zen eraikin batean dago. Aldi baterako erakusketak eta erakusketa iraunkorra dohainik bisita daitezke. Horrela, museoak zementuaren eta bere eratorrien historia eta potentziala hurbiltzen eta jende guztiaren esku jartzen ditu.



Ireki zenetik 142.000 bisita baino gehiago izan ditu. 2021ean museoak bere instalazioen berrikuntza eta zementua zer den eta material horrek gizartearen garapenean duen eta izango duen garrantzia zabaltzeko sortutako erakusketa iraunkor berria inauguratu zituen.



Lantegia eta kirola



Kirola funtsezkoa da hazteko, balioak ikasteko eta bizimodu osasungarria izateko. Horregatik, Heidelberg Materials-ek Donostiako kirolari gazteei laguntzen die, tokiko kirola babestuz hainbat laguntza eta kolaborazioren bidez. Laguntza jasotzen dutenen artean daude Añorga KKE eta San Sebastián Gipuzkoa Basket Club, besteak beste.





Añorgako Lantegia



Heidelberg
Materials

[heidelbergmaterials.es](https://www.heidelbergmaterials.es)